

## FRANTSESTEKO EUSKAL BERTSO ZAHAR-BERRIAK: MAIATZAREN BIKOAK ETA ABAR

### 1. SARRERA

Euskal bertso-sail zaharregirik ez dugu. Orain dela berrehun urte baino zaharragoak oso gutxi gorde dira gure artean. Frantsesteke berriak kontatzen dizkiguten bertso-sailak gure euskal tradizioarako oso zaharrak dira. Hemeretzigarren mende hasierakoak gutxi batzuk baino ez dira gordetzen, eta hamazortzigarrekoak askoz bakanagoak dira. Artikulu honetan frantsesteke hasierakoak eskainiko ditugu. Erdaraz *la guerra de la independencia* bezala ezagutzen dugun maiatzaren biko Madrileko liskar eta odol-isurtzearen berri norik ez du ezagutzen? Joan den urtean bete ziren berrehun urte gertaera horretatik eta hainbat omenaldi, ospakizun eta liburu berri atera dira. Historia liburuak, zein literaturakoak –Galdos handiaren paretaren buruak goratu nahirik ere bai, bat edo beste...– agertu dira gure eraskuslehioetan. Ur nahasi eta bulartuak barretuxe direlarik, omenaldi arranditsu eta zalapartatsuak joan direlarik, lantto honen bidez beste ikuspegi bat eskaini nahi dugu, gerrara joan ziren euskal mutil ipartarrena.

Aurreko lan batean, aldizkari honetan berean, Bitoriako batailako koplak argitaragabe batzuk eman genituen. Izenburu hauxe zuen harako artikulu hark: “Bitoriako batailako testigan-

tza edo frantsestearen bukaerako kopla batzuen gainean”. Bitoriako batailak Napoleonen tropak Espainiatik uxatu eta urrundu zituen. Denok dakigunez, 1813ko ekainaren 20an, Arabako lautadan izan zen bataila odoltsua eta frantsesak ihesi atera ziren. Gure oraingo artikulu honetan Espainiako gerraren hasierako bertsoak emango ditugu. Pozgarria zaigu –bertsoen testigantzaren aldetik, jakina– 1808-1814ko gerraren hasiera-bukaeretako bataila odolgiroen euskarazko aleak argitaratzea.

Lan honek euskal bertsoak ahalik eta ondoen ematea izango du helburu. Ez dugu historiako zertzeladaz jantziko bertsoak. Beste hitzez esan, euskal bertso argitaragabeak eta gutxi ezagutzen direnak eman nahi ditugu artikulu batean. Bertsoak eskuidatzietan daudenez gero, bi transkripzio egingo ditugu. Oin oharrean eskuidatzian datorren bezalaxe eta artikuluko ataletan gaurko grafiaz eta ortografiaz jantzirik.

Joan den urtean, 1808ko maiatzaren biko batailaren berrehun urte betetzen zirela eta, Pello Esnal adiskideak bataila horren euskal bertsoen jakinmina agertu zidan. Nik Parisen koptatuak eta han-hor-hemen agertuen berri eman nion. Baina jakinminak zulaturik eta bultzaturik besteren bila ibili naiz. Lantto hau, beraz, neurri handi batean berari zor diot. Orain sortatxo hau eskuetan dauzkagula eman ditzagun argitara. Ez dago esan beharrik bertsoen balioa literarioa baino gehiago historikoa dela. Euskarari dagokionez, badago bitxi bat edo beste *egun eta bizian* esapide adberbialaren beste aldaera bat *egun eta sekulan*, eta abar. Bertso hauek aztertu nahi litzuzkeenak alderdi historikotik ezezik, euskara bera ere aztergai harturik badu zer landu.

## 2. FRANTSESTEKO EUSKAL BERTSOEN BIBLIOGRAFIA

Antonio Zavalak bi liburu eskaini zion frantsesteari. 1991ko Auspoako 212. eta 213. zenbakietako *Frantzezteko bertsoak I* eta *II* liburuak. Bi liburu horiek baino lehen II. Euskal mundu-biltzarrean “La guerra napoleónica de España y los bersolaris”

hitzaldia egin zuen, eta gero biltzarreko akta-liburuan argitara zuen artikulua. Joan den urtean, maiatzaren batean, liskarren bi mendeurrenkari, artikulua polit bat argitara zuen Antonio Zavalak *Diario Vasco* egunkarian. Artikulua izenburua hauxe da: “1808-ko maiatzaren 2-ko bertso batzuk”. Guri dagokigun Madrileko liskarren berri Zavalak lehen liburua *–Frantzesetako bertsoak I–* hasieran ematen du. Hauek dira iturri nagusiak. Azkueren kantutegiko bi ahapaldi, Parisko Liburutegi Nazionaleko hamabi ahapaldiak, Jesus Maria Leizaolaren *1808-1814 en la Poesia Popular Vasca* liburua, eta *Herria* astekaria, 1961ko abenduaren 7koa. Gainerako lanen egile guztiek iturri hauetatik edaten dute. Guk geure lan honetan gutxi ezagutzen diren ereduak zein sorta argitaragabe bat emango ditugu

### 3. SARAKO KAIERREKO BERTSOAK

On Jose Migel Barandiaranek *Anuario de Eusko Folklore* al-dizkarian, 1981. urtean, argitara zuen “Amodiozko kantak” lanean, badira bi kanta interesgarri. Kanta hauek *soldado kantuak* bezala ezagutzen ziren. Ez dago esan beharrik lagun artean *Amodiozko kantuak* kantatzen ziren bezalaxe *saldado kantuak* kantatzeko ohitura ere bazegoela. *Soldadu kantu* hauek, gehienetan, bataila eta are gerren testigantza zoragarriak dira. Lehen pertsonan –singularrean edo pluralean– kantatzen ziren gerran izandako gorabeherak. Soldaduak izandako gose-egarri, hotz-bero, balentria eta ibilera harrigarritz osatuak zeuden bertso-sail hauek.

Ahozko tradizioari gagozkiola, gainera, beste zerbait gaineratu dezakegu, ahozko herri tradizio bizi xamarra izan dutela. Sarako kaierrean ez ezik, Marcel Arribillagaren kanta kaierrean ere aurkitzen dira bi kantuok<sup>1</sup>. Iparraldeko kaierrean agertze-

<sup>1</sup> Kaier horretan 25garren eta 28garren kantuak dira. Guk atal honetara aldatu ditugunekin alderatuz gero berdin-berdinak dira. Hitzxo bat bera ere ez da desberdina. Patri Urkizuk ere badakar *Bertsolaritzaren Historia Lapurdi, Baxanabarre eta Zuberoako bertso eta kantak I*, 334 kantuan, 518 orrialdean.

ak badu esangura argi bat behintzat, tradizioz kantatzeko eta herri-memorian bizirik iraunarazteko bertso biziak izan direla, ez paper zaharretan bakarrik finkatuak gelditzen diren bertso hilak. Beste hitzez esateko, Mitxelenak esan ohi zuen harako *tradición viva* edo tradizio biziari dagozkio, eta ez *letra muerta* edo tradizio hil edo etenari.

Atal honetan, segida logikoari jarraituz, lehen kantua “Frantsesak Madrilera” eta bigarrena “Frantsesak Madrilen” izango da. Titulu hauek ez dira guk asmatuak kainerretakoak beretakoak baino. Bi kainerretan, gainera, elkarri kopiatuak bezala berdin-berdin datoz bi izenburuak<sup>2</sup>. Ez dago, bestalde, esan beharrik frantsesen balentriak baino euskaldun ipartarren balentriak kontatuko direla. Hona hemen.

## FRANTSESAK MADRILERA

Laphurdi, Basanabarre, Zuberoa gurekin,  
gerlarat juan gira guziak elgarrekin.  
Madrilgo plazaraino guziak lerro-llerro,  
kantatzen dugularikan bego frantsesa libro.

2

Armadetan bestak handi, etsaiak dantzan ari,  
Frantziako nazionia ororen soñolari.  
Bonbak joiten atabala, artilleriak xirola,  
españolak eginen du heiekin karmañola.

3

Frantsesak eta españolak egun eta bizian,  
elgarrekin konpontzia izanen dik aski lan  
Gisa hortan zer bizimodu beharko dik zeruian,  
frantsesak ez dik nahiko español hilen artian.

<sup>2</sup> *Herria* astekarian agertu zenean ere berdin ematen du *Frantsesak Madrilen* azpi ohar bezala parentesi artean (*Aspaldiko soldado kantua*) duela.

4

Donibanen aphez batek kantu hauk eman ditu,  
Eskual Herrieta[n] kantatzen behar ditugu aditu.  
Frantziako erregeren dire laudoriotan,  
eskualdunen ohoretan, espagnolén laidotan<sup>3</sup>.

Lehen kantu honetan argi dago norako helburua zuten: Madrileko plazarako. Kantu honetan oraindik ez da gerraren berririk ematen. Lehen kantu hau Konbentzioko gerrakoa da, 1793koa. tankera honetako gehiago hurrengo ataletan ikusiko ditugu.

#### FRANTSESAK MADRILEN

1

Mila zortziehun eta zortzigarrenian,  
sol[da]du sarthu ginen gu iñorantzian.  
Zerbitzatu behar ginela printziaren guardian,  
egin ere badugu, behartu denian.

2

Arribatu ginenian Madrilgo hirian,  
begitarte egilia frango izatu ginian.

---

<sup>3</sup> 1–Laphurdi, Basa-nabarre, Zuberoa gurekin/ Gerlarat juan gira guziak elgarrekin/ Madrilgo plazaraino guziak lerro-lerro/ Cantatzen dugularikan bego frantsesa libro.

2–Armadetan bestak handi etsaiak dantzan ari/ Frantziako nazionia orenen soñolari/ Bombak joiten atabala/artilleriak chirola/ Espagnolak eginen du heiekin karmañola.

3–Frantsesak eta espagnolak egun eta bizian/ Elgarrekin konpontzia izanen dik aski lan/ Giza hortan zer bizimodu beharko dik zeruian/ Frantsesak ez dik nahiko espagnol hilen artian.

4–Donibanen aphez batek kantu hauk eman ditu/ Eskual-herrieta kantatzen behar ditugu aditu/ Frantziako erregeren dire laudoriotan Eskualdunen ohoretan espagnolén laidotan

Nafartarrak ginela erraiten zitaian,  
heien alde izanen ginela behartzen zirenian.

3

Maiatzeko hilaren bigarrenian,  
errebolta eman daukute Madrilgo hirian.  
Hiritikan kasatu nahi gintizteian,  
ederki tronpaturik baitaude ordian.

4

Lauetan hogoi ginen kasernatik partitu,  
bi plazetara gintuzten gero partitu.  
Lehenbiziko sua ginuenian abiatu,  
ikus ahalak oro baikintuen garbitu.

5

Xupa gorriekin ginenia[n] athera plazara,  
burla egiten zaizkigun hasi berehala.  
Madrilen uste zuten zezenak ginela,  
toleiatzekotzat mokanesekila.

6

Mokanesak iharrosiz iphurdia jo,  
oihu egiten ziteian: "Tira, tira, karako!"  
Tiratu ere ginituen dozena bi tiro,  
on zirenak joan ziren erran gabe adio.

7

Madrilgo andrekin in dute irabazi ona,  
eltze eta pitxarrak bota karrikara.  
Lur-baxera egilentzat hori ez da m[a]llhur bat,  
lehengo bien prezian orai saltzen dute bat.

8

Ikhusi zutenian gure borondatia,  
gurutze banarekin jin zauzkigun bia.

Bertzek kapotapetik harri ukhaldia,  
pena halakoa bizirik uzta!

9

Madrilgo andrek zuten konbertzazionea,  
desiratzen baitzuten gizon izaitia.  
“Frantses porroska hoiek zer debru dira,  
dozena baten aski naun bertze batekila!”<sup>4</sup>.

Frantziatik Espainiara Napoleonen soldaduak sartu ziren garaikoa da bertso-sail hau. Sartu ere ordena militarrean, lerro-lerro, zeruetan lertsoinak bezalaxe, sartu omen ziren. Guztira hogeitamarren bat mila soldadu sartu omen ziren. Murat jeneralak lapurtar, basanabartar eta zuberotarren gaina eta bikaina aukeratu omen zuen: hirurehun soldadu guztira. Muraten taldea, nonbait, eskualdun suharrek osatzen zuten. Beste hitzez,

<sup>4</sup> 1–Mila zortzi ehun eta zortzigarrenian/ Soldu sarthu ginen gu inorantzia/ Zerbitzatu behar ginela printziaren guardian/Egin ere badugu behartu denian.

2–Arribatu ginenian Madrilgo hirian/ Begitarte egilia frango izatu ginian/ Nafartarrak ginela erraitenzitaian/ Heien alde izanen ginela behartzenzirenia.

3–Maiatzeko hilaren bigarrenian/ Errebolta eman daukute Madrilgo hirian/ Hiritchan kasatu nahi gintitzeian/ Ederki trompaturik baitaude ordian.

4–Lauetan hogoi ginen kasernatik partitu/ Bi plazetara gintuzten gero partitu/ Lehembiziko sua ginuenian abiatu/ Ikuz ahalak oro baikintuen garbitu.

5–Chupa gorriekin ginenia athera plazara/ egiten zaizkigun hasi berehala/ Madrilen uste zuten zezenak ginela/ Toleiatzekotzat mokanesekila.

6–Mokanesak iharrosiz iphurdia jo/ Oihu egiten ziteia tira tira karako/ Tiaratu ere ginituen dozena bi tiro/ On zirenak joan ziren erran gabe adio.

7–Madrilgo andrek in dute iarabazi ona/ Eltze eta pitcharrak bota harrikarra/ Lur-bachera egilentzat hori ez da mlhur bat/ Lehengo bien prezuian orai saltzen dute bat.

8–Ikhusi zutenian gure borondatia/ Gurutze banarekin jin zauzkigun bia/ Bertzek kapotapetik harri ukhaldia/ Pena halakoa bizirik uzta.

9–Madrilgo andrek zuten kombertzazionea/ Desiratzen baitzuten gizon izaitia./ Frantses porroska hoiek zer debru dira Dozena baten aski naun bertze batekil

soldadu guztien artean elite bat osatzen zuten Murat-ek hautaturiko hirurehun euskaldun mutilak.

Bada kontu interesgarririk bertso hauetan. Lehen kantuan frantses-euskaldunak dira euskaldun bakarrak, gainerakoak ez dira kontuan hartzen. Lehen kanta labur honetako azken ahapaldi honek badu beste kontu interesgarririk. Nor den egilea esaten baitigu: Donibaneko apez bat.

Bi kanta hauek bereiz agertzen dira kaiurretan. Geroagoko atalean ikusiko dugun bezala, lehenaren ahapaldiak bigarrenean ere ikusiko ditugu txertaturik.

#### **4. PIARRES LAFITTEREN ESKUIDATZIAN DAUTZAN EREDUAK**

##### **4.1. Napoleonen gorantz bertsoak**

Gerrako bertsoekin hasi baino lehen Napoleon I.aren laudoriozko bertso-sail bat eskainiko dugu. Bertso-sail honetako laudorio eta laudamenak gehiegizkoak irudituko zaizkio bati baino gehiagori. Garai batean Napoleon lehenak izan zuen prestijio eta uste onaren erakusle dira. Atal nagusi honetan guztira sei bertso-sail jarriko ditugu. Bertso-sail hauek zerbaki erromatarrez markatuko ditugu. Kantu hauen guztien iturria bera da: Lafitte 401-002. Dokumentuaren izenburua “Divers manuscrits 19eme siècle.” Hona hemen lehena

I-La conclusion de la paix<sup>5</sup>

1

Egungo egunian ez da ez posible,  
egon dadin etxian khantu eman gabe.  
Jin zaukunaz geroztik, oi! desiratuia,  
erresuma ororekin bake egilia,  
gozaturen bakia,  
biba, biba Franzia!

<sup>5</sup> Kanta hau aipatu dokumentuko 13. da.



2

Beraz, aita eta ama konsola zaitetze:  
zuen haurren anaiak jinen dira fite.  
Erramu hosto pherdez txapelak betherik,  
konjitak sekulakotz ongi goititurik,  
gozaturen bakia.  
Biba, biba Franzia!

3

Mundu huntan othe da nehor ere gizonik  
Bonaparten aldian jar laitekenik.  
Errumako borthetara hurbildu zeneko,  
bere armadarekin hirian sartzeko,  
oihuz Aita sainduia.  
Biba, biba Franzia<sup>6</sup>!!!

Aita santua ere Napoleonen goraiatzaille agertzen da kantuan. Aita santua bera ere izan zen, denok dakigunez, Napoleonen enperadore koroatu zuena...

#### 4.2 Madrilerako euskal soldaduen joanera

Puntu honetan goraxeago jarri dugun Sarako kaierreko lehen kantu bera dugu beste aldaera bitan. Bi aldaera hauek badute berritasunik beren laburrean. Oraingoz jar ditzagun aldaera biak.

---

<sup>6</sup> 1–Egungo egunian ezda ez posible/ Egon dadin etchian khantu eman gabé,/ Yin zaucunaz gueroztic, oi! desiratuaia,/ Erresuma ororequin baque egui-lia./ Gozaturen baquia,/ Biba, biba Franzia

2–Beraz aita eta ama consola zaitetze:/ Zuen haurren anaiyac yinen dira fite;/ Erramu hosto pherdez chapelac betheric/ Conjitic seculacotz ongui goitituric./ Gozaturen baquia,/ Biba, biba Francia!

3–Mundu huntan otheda nehor ere guizonic/ Bonaparten aldian yar Laiten-kenic:/ Errumaco borthetara hurbildu ceneco,/ Bere armadarequin hirian sartceco/ Oihuz Aita sainduia:/ Biba, biba Francia!!!

## II- L'antrée des Français à Madrid

1

Armadetan phestak handi, etsaia dantzan ari,  
 Franziako nazionia orenen soinulari.  
 Bonbak joiten atabala, artileriak xirula;  
 españolak heien artian egingen du karmañola.

2

Laphurdi, Baxenabarre, Zuberua heiekin,  
 gerlara juan behar gira, guziak elgarrekin;  
 Madrileko plazaraino guziak lerro-lerro;  
 khantatzen dugularik: "bego franzas libro".

3

Franzasak eta<sup>7</sup> españolak egun eta sekulan,  
 elkarrekin konpuntzia izanen du aski lan.  
 Zer gisaz phasa dirote hil eta zeruan?  
 Franzasak ez du nahiko españolen artean.

4

Napoleon Bonaparte hain da gizon handia,  
 nun harentzat ez guphida nihork bere bizia.  
 Uropa oro kontra du norteraino guzia:  
 elementa orenen kontra bitorios Franzia<sup>8</sup>.

<sup>7</sup> Sinalefa egiten da kantuan horrexegatik dakar *et Espagnolac* eskuidatzian.

<sup>8</sup> 1–Armadetan phestac handi etxaya dantzan ari/ Franciaco nacionia orenen soinulari:/ Bombac yoitzen atabala, artiliaciak chirula;/ Espagnolac heyen artian eguinen du Carmagnola.

2–Laphurdi, Bachenabarre, Zuberua heyequin,/ Guerlara yuan behar gira, guciac elgarrequin;/ Madrileco plazaraino guciac lerro, lerro;/ Khantatcen dugularic: bego Franzas libro

3–Francesac et Espagnolac egun eta seculan/ Elgarrequin compuntcia izanen du aski lan./ Cer guisaz phasa dirote hil eta Ceruan./ Francesac ezdu nahico Espagnolen artean.

4–Napoleon Bonaparte hainda guizon handia,/ Nun harentzat ez guphida nihorc bere bicia:/ Uropa oro kontra du Norteraino gucia:/ Elementa orenen kontra bitorios Francia

Lau ahapaldi hauetarik hiru ezagunak ditugu. Goraxeago jarri dugun Sarako lehen kantuaren aldaera bat baino ez da. Laugarren ahapaldia berria da. Napoleon handiarengatik hiltzea ohoragarri dela dio. Bizia ez omen da gupidatu behar Napoleon handiagatik. Bestela esan: norberaren bizia galtzeko errukirik ez da izan behar, hain da handia Napoleon. Behin zerura joan ondoren ere, frantsesak ez omen du nahiko espagnolaren ondoan egotea. Española zerura joan daitekeela, behintzat, onartzen da kantuan, eta ez da gutxi.

Orain ondoren datorrena mutil gazteen armada-deia da. Deitze hau edo galde hau Lapurdin, Basenabarran eta Zuberoan egingo zen<sup>9</sup>.

### III-Entrée des troupes françaises en Espagne<sup>10</sup>

1

Martxuaren lehenian Jandoni Leon da,  
soldaduen galdia orduian jina da.  
Bildu bihar girela guziak zorthera,  
laurdenak harmekilan gerla egitera.

2

Laphurdi, Baxanabarre, Xuberua heiekin,  
gerlara juan behar gira, guziak elgarrekin.  
Madrilako plazaraino guziak lerro-lerro,  
kantatzen dugularik bego Franzia libro

3

Armadetan phestak handi etsaia dantzan ari,  
Frantziako nazionia ororen soinulari.

---

<sup>9</sup> Kanta hau aipatu dugun dokumentuko 15a da.

<sup>10</sup> Kantu honek aipatu dugun dokumentuko 16. zenbakia du.

Phezak jotzen atabala, artileriak xirula,  
espainol jaunek egiten dute dantza eta kabriola<sup>11</sup>.

Kanta hau goragoko Sarako kaierreko lehen kanta bera da, baina hiru ahapaldi dituela. Lehen ahapaldia ez dugu orain arte beste inongo kantutan ikusi. Noiz armadaratu ziren mutilak esaten zaigu. *Zortera bildu* esapideak, “llamar a filas” izan behar du. Beste kantu batzuetan ere agertzen da kontu hau. Kaxo Kanboko bertso jartzaileak ere badu (*ikus Frantzesteko bertsoak I, 84 or.*) tankera honetako ahapaldi bat: *Bonapart da leku bautan/ gizon bat aipatua,/ aspaldian harek badu/ beti soldado-galdia,/ bizi gareno ez dugu/ guk ikusiren Frantzia.*

*Laurdenak* gazteleraz “cuartos” delakoaren ordaina da. *Arma* hitza hatxerekin ikusten dugu lehen ahapaldian, hirugarreneko *armada*, ordea, gabe. *Frantzia* ikusten eskuidatzian. Orain arte beti euskal eskuidatzietan *Francia* ikusi dugu. Euskaraz *Franzia/Frantzia* modu bietara esango zen, duda handirik gabe. Gu, geure irizpideei jarraiki, kanta bakoitzekoa ahalik eta gutxien aldatzen ahalegindu gara. 1793ko Konbentzioko gerrakoak dira bi eredu berri hauek.

### **4.3 Mila zortziehun eta zortzigarrenian kantaren hiru aldaera**

Hauxe da Madrilgo errebolta eta gerraren hasierako bataila deskribatzen duen kantua. Atal honetan hiru eredu eskainiko

<sup>11</sup> 1–Martchuaren lehenian Yandoni Leon da/ Soldaduen galdia orduyan yina da Bildu bihar guirela guciac Çorthera/ Laurdenac harmekilan guerla eguitera.

2–Laphurdi Bachanabarre, Chuberua heyekin/ Guerlara yuan behar guira guciac elgarrekin/ Madrilaco plaçaraino guciac lerro lerro/ Cantatcen dugularic bego Francia libro

3–Armadetan phestac handi/ Etsaya dantçan ari/ Frantciaco nacionia ororen soinulari/ Pheçac yotcen atabala, artileriak chirula/ Espainol yaunec eguiten dute dantça eta cabriola

ditugu. Lehen eredu Sarako kaierrekoaren oso antzekoa da, baina beste biek badute berritasunik. Eman ditzagun gutxieneko azalpen batzuk bertsoak ulertzeko. Goraxeago zer bait aipatu badugu ere, jo dezagun apurren bat sakonago. Murat delako printzeak hirurehun gudamutil hartu zituen bere guardiara-ko. Guardia hori “ohorezkoa” omen zen: *garde d'honneur*. Pentsatzekoa da euskal mutil bikainez osatua izango zela delako guardia hori. Euskal mutil bikainak, ausardiatsuak, indartsuak... , baina baita basako eta basapiztia galantak ere, inolako errukirik gabe aurrean zutena tiroz garbitzeko prest. Diogunaren adibide garbi dira kantu hauetako zenbait esaldi harrigarri arimagaldurik negargarrienak ere nekez esan ditza-keenak *juan zirenak juan ziren erran gabe adio* edo *pena duk halakoa bizirik uztia...*

Kantuetan, batez ere lehen ahapaldian, agertzen den Printzea Murat dugu. Jazkera gorria zuten printzearen guardiakoak: *costume rouge*<sup>12</sup>. Jantzi gorri horiek modu desberdinetan azaltzen dira bertsoetan. Parisko liburutegikoak *xapelgorriak* dira. Gure hiru eredu hauetan *xupagorriak*, *kapagorriak* eta *kamisolagorriak* izango dira. Madrildarrak adarra jo eta burlagarri erabili nahi izan zituzten euskal gudamutil hauek. Gorriz jantzita zeudenez gero, toreatu nahi izan zituzten zezenak balira bezala. Mutil hauek, ordea, batera eta bestera, burua eta atzea astintzen hasi zitzaizkienean madrildarrak, zatartu edo biziki haserretu eta sua egin omen zuten. Bestela esan, tiroak tiratzen hasi ziren eta baita aurrean zituztenak hil ere! Gertaera hori da, hondarraren hondarrean, hemen kontatzen dena.

Madrileko herri-iraultzan baxerak, teilak, lurrezko ontziak eta eskuera zuten zernahi jaurti omen zizkieten madrildarrek

<sup>12</sup> Honelaxe dio Parisko liburutegikoan: “Pendant ses séjours à Bayonne, Murat s’était formé une garde d’honneur de trois cents Basques: ce bataillon, dont le costume rouge était façonné dans la forme nationale, se composait de l’élite du pays: il donne des preuves d’intrepidité dans plusieurs rencontres et notamment à la prise de Madrid: peu de ces jeunes gens revirent les foyers. L’auteur du récit qui précède faisait parité de cette garde d’honneur.”

Napoleonon soldaduei. Gertaera horren berri ere ematen dute bertso hauek. Madrilgo emakumeen protagonismoa eta ausardia ere goraiatzen da bertso hauetan. Esan dezagun, azkenik, Parisko alean bertsoen egilearen berri ere ematen dela:

Kantu hunen emailea motiko gaztea,  
lapurtarra eta mendiko umea.  
Bertsu hoi en emaiteko izan du gutizia,  
ikusi duenean komoditatia.

Orain eskuera ez dudan neure kopian, bertso-saila zein urtetan bildua zen agertzen da 1845 inguruan. Garai horretan oraindik bizi zitekeen 1808an gaztea zen mutila. Esan dezagun, azkenik, Murat printzearen ohorezko guardia honetatik gutxi batzuk atera zirela bizirik. Bizirik atera zen horietako batek bertso-sena izan eta ondu bide zuen bertso-sail hau:

Hona beste gabe gure hiru aldaerak:

#### IV-Entrée de l'armée française à Madrid, en 1808<sup>13</sup>

1

Mila zortzihun eta zortzigarrenian,  
soldadu sarthu ginen gu inozentzian.  
Zerbitzatu behar ginela printziaren guardian,  
egin ere badugu, behartu denian.

2

Arribatu ginenian Madrilgo hirian,  
begitarte egilia franko izaten ginian.  
Nafartarrak ginela erraiten ziteian,  
heien alde izanen ginela behartzen zirenian.

<sup>13</sup> Kantu hau eskuidatzian 18 zenbakia du.

3

Maiatzeko hilaren bigarrenian,  
errebolta eman daukute Madrilgo hirian.  
hiritikan kasatu nahi ginituzteian,  
ederki tronpaturik baitaude ordian

4

Lauetan hogoi ginen kasernatik partitu,  
bi plazetara ginituzten gero partitu.  
Lehenbiziko suia ginuen abiatu,  
ikhus ahala oro baikintuen garbitu.

5

Xupa gorriekin ginenian atera plazara,  
burla egiten zaizkigu hasi berehala.  
Madrillen uste zuten zezenak ginela,  
toleiatzekotzat mokañasekila.

6

Mokanasak iharrausiz, ipurdiaz yo,  
oihu egiten zaukuten: "Tira, tira, karako!".  
Tiratu ere baginiotzaten dotzena bi tiro,  
on zirenak guan ziren erran gabe adio.

7

Madrilgo andrekin egin dute irabazi bat ona  
eltze eta pixerrak bota karriketara.  
Lur-baxera egilentzat hori ez da malur bat  
leheneko bien prezioan, orai saltzen dute bat.

8

Ikhusi zutenian gure borondatia,  
khurutze banarekin jin zaizkigu bia.  
Bertziek kapapetik harri ukhaldia.  
Pena duk halakoa bizirik uztea!

9

Madrilgo andrek zuten konbersazionea,  
 desiratzen ere zuten gizon izaitea:  
 “Frantses porroxka horiek zertako debru dira!  
 Dotzena baten aski nun bertze batekila”<sup>14</sup>.

Gorago azaldu dugun bezalaxe, Napoleonen euskal mutilak gorritz jantziak ziren, xupa gorriak zituzten eta madrildarrek euskal mutilak, behin plazara sartutakoan, toreatzen hasi ziren. Orduan Murat-en gerrari ipartarrek haserretu eta burla egileak erruki gabe hil zituzten. Azken bertsoan Madrilgo emakumeen ausardia eta adorea goratzen da. Hurrengo aldaera aurreko ho-

<sup>14</sup> 1—Mila çortci ehun eta çortci garrenian/ Soldadu sarthu guinen gu inucentcian,/ Cerbitçatu behar guinela printciaren guardian/ Eguin ere badugu behartu denian.

2—Arribatu guinenian Madrilgo hirian,/ Beguitarte egulia franco içaten guinian./ Nafartarrac guinela erraiten citeyan/ Heyen alde içanen guinela behartcen cirenian.

3—Mayatceco hilaren bigarrenian,/ Errebolta eman daucute Madrilgo hirian;/ Hiritican cassatu nahi guinitusteyan/ Ederki trompaturic baitaude ordian

4—Lauetan hogoi guinen casernatic partitu,/ Bi placetara guinituzten guero partitu,/ Lehen bicico suia guinuen abiatu,/ Ikhus ahala oro baikintuen garbitu.

5—Chupa gorriekin guinenian atera plaçara,/ Burla eguiten çaizkigu hassi berehala./ Madrillen uste çuten cecenac guinela/ Toleyatcecotcat mocanassekila.

6—Mocanassac iharraussiz, ipurdiaz yo,/ Oihu eguiten çaucuten, tira, tira, carako,/ Tiratu ere baguiniotçaten dotzena bi tiro,/ On cirenac guan ciren erran gabe adio.

7—Madrilgo andrec eguin dute irabaci bat ona/ Eltce eta picherrac bota carriketara,/ Lur bachera eguilentçat hori ezta malur bat/ Leheneco bien precioan, orai saltcen dute bat.

8—Ikhusi çutenian gure borondatia/ Khurutce banarekin yin çaizkigu bia,/ Bertciec capapetic harri ukhaldia/ Pena duc halacoac biciric uztia

9—Madrilgo andrec çuten combersacionea,/ Desiratcen ere çuten guiçon içaitea./ Frantses porrochka horiek certaco debru dira,/Dotcenabaten aski nun bertcebatekila



nen ondoan dator eskuidatzian. Kantaren buruan datorren azalpentxo *même* da, hots, gai bera duela.

V-kantua<sup>15</sup>

1

Mila zortziehun eta zortzigarrenian,  
soldado sarthu ginen, oi inozentzian!  
Zerbitzatuko ginela printziaren guardian,  
egin ere bagira, tenora jin denian.

2

Laphurdi, Baxenabarre, Suberua heiekin,  
gerlara jua behar gira, guziak elkharrekin,  
Madrileko plazaraino guziak lerro-lerro,  
kantatzen dugularik orok: “Bego frantsesa libro”.

3

Arribatu ginenian Madrilgo hirian,  
agur egile franko izaiten ginian.  
Kapagorriak ginela erraiten ziteian,  
heien alde izanen ginela behartzen zirenian.

4

Kapagorriak ginenian athera plazara,  
trufa egiten hasi zaizkun berheiala:  
“Frantses phurruska hoiek zerendako debru dira,  
hoietarik dotzena baten frango gira biga!”.

5

Español andre horien konbersazionia,  
desiratzen ere zuten gizon izaitia,  
bertziak kapapetik harri ukhaldia.  
Halakuaren pena zen bizirik uztia!

---

<sup>15</sup> Eskuidatzian 18 zenbakian bi ale agertzen dira, aurrekoa eta hau berau.

6

Mokanesa harro eta gibelaldea jo,  
erraiten ere zaukuten: “Tira, tira, karako”.  
Tiratu ginotzaten zenbait dotzena tiro,  
juan zirenak joan ziren erran gabe adio.

7

Kokhuak jarri kiren humiliaturik,  
xapelak eskuan jartzen urrundarik.  
Permis zaienez pasatzia galdegiten lehenik,  
kokhuek ez dute ikhusi halako mementurik.

8

Español andre horiek etxerat ezin menturatu,  
kapitainagana permisioneketa.  
Kapitainak sabria furreguan sar eta,  
segitzen ere zitsien besotik har eta.

9

Andre hoiek egin dute irabazi eder bat,  
eltzeak eta putxerak arteki karrikalat.  
Hori ez da malur bat lur baxera egilentzat,  
lehengo bien prezioan orai erosiren dute bat.

10

Frantsesak eta espāñolak egun eta bizian,  
elkharrekin ezin konponduz badukete aski lan.  
Bertze munduan zer bizimodu heien bien artian,  
franses jaunak ez egon nahiz espāñol kokuen artian<sup>16</sup>.

---

<sup>16</sup> 1–Mila çortci ehun eta çortcigarrenian,/ Soldado sarthu guinen oi inocent-  
cian;/ Cerbiçatuco guinela printciaren guardian;/ Eguin ere baguira tenora  
yin denian.

2–Laphurdi, Bachenabarre, Suberua heyekin,/ guerlara yuan behar guira  
guciac elkharrekin,/ Madrileco plaçaraino guciac lerro lerro,/ Cantatcen du-  
gularic oroc bego Franxessa libro

Aldaera berri honek bi ahapaldi berri ematen ditu 7a eta 8a. Ezagutzen ditugun ahapaldiak ere oso ordena bestelakoan ikusten ditugu. Azken ahapaldia beste kantu batekoa zirudiena, gurearen bukaera da. Beste mundura joaten direnean –ez da zerurik aipatzen ahapaldi honetan– frantsesak *jaun* izaten jarraituko dute, espainolak, ordea, *kokuak* diren bitartean...

## VI-Chansons du prince Murat<sup>17</sup>

1

Mila zortziehun eta zortzigarrenian,  
soldado sarthu ginen inuzentzian.  
Zerbitzatu behar ginela Prinzearen guardian,  
egin ere bagira, behartu denian.

---

3–Arribatu guinenian Madrilgo hirian,/ Agur eguile franco içaiten guinian,/ Capa gorriac guinela erraiten citeyan/ Heyen alde içanen guinela behartcen cirenian.

4–Capa gorriac guinenian athera plaçara,/ Trufa eguiten hasi caizkun berheyala/ Franxes phurrusca hoyec cerendako debru dira/ Hoyetariac dotcena-baten frango guira biga.

5–Espagnol andre horien combersacionia,/ Desiratcen ere çuten guiçon içaitia,/ Bertciac capapetic, harri ukhaldia/ Halacuaren pena cen biciric uztia.

6–Mocanessa harro eta guibelaldea yo/ Erraiten ere çaucuten tira, tira, carako,/ Tiratu guinoçaten cembait dotcena tiro,/ Yuan cirenac yoan ciren erran gabe adio.

7–Cokhuac yarri ciren humiliaturic,/ Chapelac escuan yartcen urrundanic,/ Permis çayenez pasatcia galdeguiten lehenic,/ Cokhuac ez dute ikhussi halaco mementuric.

8–Espagnol andre horiec etcherat ecin menturatu,/ Capitaina gana permisioñeketa;/ Capitainac sabria furreguan sar eta,/ Seguitcen ere citsien bessotic har eta.

9–Andre hoyec eguin dute irabaci eder bat,/ Eltceac eta putcherac arteki carricalat,/ Hori ez da malur bat lur bachera eguilentçat/ Lehengo bien precioan orai erosiren dute bat

10–Fransesac eta espagnolac egun eta bician,/ Elkharrekin ecin componduz badukete aski lan/ Bertce munduan cer bici modu heyen bien artian/ Franses yaunac ez egon nahiz espagnol cokuen artian

<sup>17</sup> Eskuidatzian 25 zenbakia du kanta honek.

2

Arribatu ginenian Madrileko hirian,  
 begitarte egile franko izaiten ginian.  
 Nafartarrak ginela erraiten ziteian,  
 heien alde izanen ginela behartzen zirenian.

3

Maiatzeko hilian halere bian,  
 errebolta eman daukute Madrilgo hirian.  
 Hiritikan kasatu nahi gintuzteian,  
 ederki tronpaturik bat[a]lde orduian.

6

Kamisolagorriak ginenian athera plazala,  
 burla egiten zaizkun hasi be[r]heala.  
 Arabez uste zuten zezenak ginela,  
 gure toleatzeko bokanesekila.

5

Hango andrek egin dute irabazi eder bat,  
 eltziaik eta phitxerrak aurthikiz karrikarat.  
 Lur baxera egilentzat ez da malur bat,  
 lehenago bien plazan saltzen dute orai bat

6

Muthikuiak nun zirete?  
 Ongi urusa are eta<sup>18</sup> orai hor baizirete!  
 Ethorri dituk jandarmiak zortzi ongi ha[r]matuiak,  
 mañotak eginik berriak dobliak kulotekin<sup>19</sup> guzia.

7

Urtharrilaren hamabian, erretretaren joitian,  
 hantik zitadelan athera ginen athetik.  
 Bi sentinelen artetik yauzi egin zubitik, gogotik,  
 galdegin gabe kongitik.

<sup>18</sup> Hala irakurri beharko ote da *areta* edo izan litekeena eskuidatzian?

<sup>19</sup> Zer irakurri behar ote da hitz honetan? Eskuidatzian iluntxo dator. Azkenean *culotequin* irakurri dugu.

8

Abisatu zirenian, berria aditu zutenian,  
lanak ziren orduian hasi ziren zapartakoka,  
lurrari ere ostikoka, bere biluak tiraka,  
sakreka nihori ezin mendeka.

9

Komandanta zutenian abertitu,  
eskaldunak espakatu zaizku sekulako zen harritu.  
–Jaunak, nik ez zioiat sinhets espakatu dela gizonik,  
oi! murrui la hautarik bizirik, jauzi eginik segurik<sup>20</sup>

Azken lau ahapaldiak berriak dira guztiz, orain arteko inongo eredutan ikusigabeak. Madrilen Napoleonen, edo nahiago bada Murat-en, euskal mutilak egindako balentria harrigarri berriak kontatzen ditu. Gorago esan dugun bezalaxe Madriler

<sup>20</sup> 1–Mila çortci ehun eta çortci garrenian/ Soldado sarthu guinen inucentcian/  
Cerbiçatu behar guinela Princearen guardian/ Eguin ere baguira behartu denian

2–Arribatu guinenian Madrileco hirian/ Beguitarte eguile franko içaiten  
guinian/ Nafartarrac guinela erraiten citeyan/ Heyen alde içanen guinela behar  
cirenian

3–Mayatceco hilian halere bian/ Errebolta eman daucute Madrilgo hirian/  
Hiritican casatu nahi quintusteyan/ Ederqui trompaturic batute orduyan

4–Camissola gorriac guinenian athera plaçala/ Burla eguiten çaiçcun hassi  
beheala/ Arabez uste çuten cecenac guinela/ Gure toleatceco bocanesequila

5–Hango andrec eguin dute irabaci eder bat/ Elciac eta phitcherrac aurthi-  
kiz carricarat/ Lur bachera eguilentçat ez da malur bat/ Lehenago bien  
plaçan saltcen dute orai bat

6–Muthicuyac nun cirete?/ Ongui urusa areta orai hor baicirete/ Ethorri di-  
tuc yandarmiac çortci ongui hamatuyac/ Magnotac eguinic berriac dobliaç  
culotequin gucia

7–Urtharrilaren hamabian erretretaren yoitian/ Hantic citadelan athera gui-  
nen athetic/ Bi sentinelen artetic yauci eguin çubitic gogotic /Galdeguin ga-  
be congitic

8–Abisatu cirenian, berria aditu çutenian/ Lanac ciren orduyan hassi ciren çä-  
partacoca Lurrari ere osticoca bere biluac tiraca/ Sacreca nihori ezin mendeka.

9–Comandanta çutenian abertitu/ Escaldunac espacatu çaiçcu seculaco  
cen harritu/ Yaunac nic ez cioyat sinehts espacatu dela guiçonic/ Oi murrui la  
hautaric biciric, yauci eguinic segurik

joan ziren euskal mutilak ez diren nolana hikoak: elite bat osatzen zuten. Prestak, ausartak, suharrak, zaluak, odolberoak eta inolako konprimenturik gabekoak ziren. Ez ote dago argi baino argiago bertsoetan?

## 5. AZKEN ONDORIOA

Zortzi dira, guztira, lan honetan eskaini ditugun kantuek. Bi Sarako kaierrekoak eta sei Lafitteren eskuidatzietakoak. Lafitterek bat behintzat argitaratu zuen *Herria* astekarian, gorago esan dugunez. Argitara zuena, ordea, gure Sarako kantua oso antzerakoa da. *Herria* astekarikoa badirudi zerbait aldatu- xea dagoela, jatorrizko testutik hobetu beharrez edo. Badago beste aukera bat ere: guk esku artean izan ditugun eskuidatzietatik hartua ez izatea, ezagutzen ez dugun beste idatzi bate- tik baino. Antonio Zavalaren liburuan datozen eruedetan, jakina, guk hemen jarri ez ditugun ahapaldi berak eta desberdinak ere badira. Azkuek, esaterako, bi ahapaldi bakarrik jaso arren, bat beste inon ez datorrena da.

Napoleonen gorantz egindako kantua eta bi bertso-sail eman ditugu lantto honetan. Lehen bertso-saileko ahapaldiak –Sarako lehen kantua eta abar– bigarrean ere ikusi ditugu txertaturik. Garai batean, baliteke maiatzeko hilaren biko bertso-sail gehiago izatea. Eta, baliteke era berean, sail guzti horietatik bertso edo ahapaldiak, denboran barrena, sail desberdinetan kateatzea. Izan ere, asko eta handiak izan behar zuten euskal mendietako hiruehun euskaldun zainart eta odol bizi-koek Madrile handian pasatuko zituzten menturak. Gure eredu berrietan mentura edo balentria gehiago kontatzen dira: mu-rrailatik ihes egin, eta abar.

Gure lana, batez ere eredu gutxi ezagunetan eta eskuidatzietan oinarriturik, eredu berriak eskaini eta finkatzea izan da. Eredu berriak bi modutara: jatorrizko eskuidatzian dauden be- zala eta gaurko grafia eta ortografian.

*Jabier Kalzakorta*